


Gizarte Hezkuntza Gradua

**Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia
Fakultatea**

DONOSTIA | SAN SEBASTIAN



VI. Modulua:

Gizarte eta Hezkuntzako esku-hartzeak

Guía del módulo



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

AURKIBIDEA

■ HELBURU OROKORRA ETA GAITASUNAK	2
■ VI MODULUKO IRAKASGAIK	3
■ DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN)	3
■ DLANARI EGITEN ZAION EKARPENA IKASGAI ANITZETATIK.....	5
■ DILANA EGITEKO PREOZEDURA	7
■ EGUTEGIA.....	8
■ TOXSTENAREN EGITURA.....	9
■ EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.....	10

■ HELBURU OROKORRA ETA GAITASUNAK

Helburu orokorra

Modulu honen xedea da ikasleek ezagutzea zein diren gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen testuinguruak (programak, egoerak, populazio-taldeak, esparruak) eta lanbide honetako funtsezko tresnak.

Modulu honen bitartez, gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen esparru nagusietako eginkizunei eta prozedurei ekin nahi diegu, eta bereziki lehenetsi gure testuinguruan eskari handiagoa duten eta, beraz, enplegua lortzeko aukera gehiago eskaintzen duten esparruak..

Esparruak hauek dira: haurtzaroa, nerabezaroa, gaztaroa, familia, pertsona helduak, adinekoak, menpeko pertsonak eta testuinguru kaltetuak.

Modulua hezurramitzen duen diziplinarteko jarduera honako honetan datza: ikasleek kasu baten azterketa egin eta aurkeztu behar dute, ongi arrazoituta, gizarte-hezkuntzaren edozein esku-hartze esparrutan, prozesuaren eta profesional gisa har daitezkeen erabakien azterketa osoa barne hartuta.

Garatuko diren gaitasunak

Modulu honetarako aipatutako ikaskuntzak gaitasun hauekin lotuta daude:

1. Moduluaosatzen duten esku-hartze esparruetako erakunde-, organizazio- eta heziketa-sarea ulertzea eta, horrez gain, gizarte-hezitzailearen eginkizun profesionalak kokatzea.
2. Moduluaosatzen duten lan-esparruetako diagnosi-, balorazio- eta esku-hartze ereduak aztertzea.
3. Esku hartzeko egoerak identifikatzea eta premiak detektatzea eta lehenestea, gizarte eta hezkuntzako esku-hartze proposamen zehatz bat egiteko, irizpide etikoei eta laneko deontologia-irizpideei jarraitu eta genero-dimentsioa aintzat hartuta.
4. Moduluaosatzen duten esparruetako bakoitzak berezkoak dituen esku-hartze estrategiak erabiltzea jarrera zuhur eta kritikoarekin.

Ikasitakoaren emaitzak:

Kasu azterketa bidezko ikasketaren bidez honako emaitza hauek lortuko dira:

- Moduluan eskuratutako ezagutza teoriko eta praktikoak integratzea, kasu baten azterketaz baliatuz.
- Aurrez atzemandako premiei erantzuteko proiektuak edo programak diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea.
- Hezkuntza-proposamenei eta hezkuntza bitartekoei buruzko erabakiak hartzea.
- Esku-hartze profesionaleko proposamenak argudiatzea.
- Izaera profesionaleko proiektuak eta ideiak ahoz eta idatziz adieraztea.
- DILANa aurkeztea, arau formal akademikoei jarraituz.

VI. MODULUAREN IKASGAIAK

IRASTURTEA	MODULUA	IRAKASGAIAK	ECTS
2	M6- Gizarte eta Hezkuntzako esku hartzeak	Gizarte eta Hezkuntza Esku-hartzea Pertsona Helduekin, Adinekoekin eta Menpeko Pertsonekin	6
		Gizarte eta Hezkuntza Esku-hartzea Testuinguru kaltetuetan	6
		Gizarte eta Hezkuntza Esku-hartzea Familiar, Haurtzaroan, Nerabezaroan eta Gaztaroan	6
		Kulturarteko Hezkuntza*	6
		Familia Orientazioa*	6
		Bizitza Aktiborako Transtsizioa *	6
		GIZARTE HEZKUNTZA GIDA OROJORRA (PDF)	GIZARTE HEZKUNTZA WEBGUNEA

*HAUTAZKOAK

■ DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN)

Egin beharreko lana

DILAN honetan ikasleak gizarte-hezkuntza esku-hartze bat diseinatu beharko du, testuinguru zehatz batean kokatuta eta horretarako gizarte-heziketaren tresnak erabiliz. Moduluaren amaieran, ikasleek aurkeztu beharko dute, bai ahoz bai idatziz, proposatutako kasuaren txostena eta kasuaren garapenerako proposatzen den esku-hartzea. Esku-hartze hori moduluan garatzen den edozein esparrutarako egin daiteke. Txosten idatziak prozesuan zehar hartutako erabakien azterketa eta balorazioa jasoko du, eta baita, modu arrazoituan, hobetzeko aukera bideragarriak ere.

Aztertu beharreko kasuaren narrazioa eta informazio osagarria jasotzen dituen dokumentua DILANaren aurkezpen-unean banatuko zaio ikasleari. Pentsamenduak, hausnarketak eta erabaki partekatutak galdera hau izango du ardatz:

“Nik, gizarte-hezitzaile gisa, nola egingo nuke lan aurkeztu didaten kasu/egoera honetan, eta, nire esku-hartze prozesuan, zein inguruetan eta zein zerbitzuekin egingo nuke lan?”

Metodologia

DILANA *kasuaren metodoan* oinarrituko da. Kasu-metodoa irakaskuntza/ikaskuntzako estrategia aktibo bat da, egoera (benetako edo hipotetiko) bat ardatz duten zenbait zereginen bitartez ikasleak errealitatera hurbiltzea eta garrantzizko erabakiak hartzen hastea xede duena.

Kasuari diziplinarteko ikuspegitik heltzeak, esparru/egoera/testuinguru komun bat eskaintzen die ikasleei eta, era berean, haiek esku-hartzearen alorreko jardunera irekitzea gizarte eta hezkuntzako esku-hartzearen alorreko zerbitzu, programa eta/edo bitartekoen bidez; ahalbidetzen du gure testuinguruan, modulua osatzen duten nahitaezko ikasgaietan heltzen eta garatzen diren zerbitzu, programa eta/edo bitartekoen bidez, alegia.

Kasuak hainbat aldagai dituen eta aztergai izan daitezkeen agertoki orokor bat deskribatzen du. Xedea da ikasleek egoera aztertzea, arazoak zehaztea eta beren ondorioak ateratzea, bai bideratu diren ekintzei buruz zein bideratu behar liratekeen ekintzei buruz, gaia taldean eztabaidatu eta gero; eta beren ekintza-plana ahoz edo idatziz deskribatzea edo defendatzea. Egoera material idatzian, filmatuan edo marraztuan, euskarri informatikoan edo ikus-entzunezkoan aurkez daiteke. Teoria adibideen bidez azaltzeko eta eskuratutako ezagutzak praktikan jartzeko erabili daitezke Kasu-azterketak. Ikaslea bere ikaskuntzan inplikatzeko laguntzen duen eta taldean lan egiteko aukera ematen duen estrategia bat da. Talde txikitan zein handitan erabili daiteke.

■ DILANARI EGITEN ZAION EKARPENA IKASGAI ANITZETATIK

Gizarte eta Hezkuntza Esku-hartzea Pertsona Helduekin, Adinekoekin eta Menpeko Pertsonekin. (Nahitaezkoa) (A)

Ikasgaiaren edukietatik kasuan aintzat hartzeko elementuak atera daitezke, esaterako, hauek:

- Gizarte- eta hezkuntza-alorreko helduen premiak gaur egun: familiako helduak ardatz hartuta, haien egoera, prestakuntza eta hezkuntza-premiak aztertu daitezke haien egoera pertsonal eta sozialaren arabera.
- Helduak gizarte eta hezkuntzako esku-hartzearen subjektu gisa: helduen prestakuntzatik justifikatzen da eta, bereziki, gurasoek, izebak dituzten premietatik.
- Mendetasun egoeran dauden pertsonak eskubide osoko herritar gisa: depresioa, alkoholismoa, hirugarren adineko pertsona bat eta abar... minusbaliotasunen gaia, mendetasunari buruzko arauak, minusbaliotasunen bat dutenen eskubideak eta abar aztertzeraz gonbidatzen duten elementuak dira.
- Gizarte- eta hezkuntza-alorreko esku-hartze proposamenak: programa pertsonalak eta komunitarioak aurkez daitezke adinekoei zuzenduak, minusbaliotasuna duten pertsonen edo ez, eta, komunitate integratzailea baten eskaeren arabera.
- Gizarte hezitzailearen papera pertsona helduekin, adinekoekin eta menpekoekin eskuhartzerakoan.
- Gizarte- eta hezkuntza-bitartekoak: minusbaliotasuna duten pertsonen alorrean diharduten zerbitzu eta erakundeen berri emango da, batez ere, kasuari begira, osasun mentalaren eta hirugarren adinarekin lotutakoa.

Gizarte Hezkuntza Gradua

Gizarte eta Hezkuntza Esku-hartzea Testuinguru Kaltetuetan. (Nahitaezkoa) (K)

Irakasgaiaren edukiek DILAN-aren garapenerako erabilgarriak diren elementuak aportatuko ditu hurrengo alderdietan:

- Testuinguru kaltetuetan egiten den gizarte eta hezkuntza eskuhartzeari buruz ezagutza eta informazio baliagarria lortzeko datu baseen ezagutza.
- Testuinguru kaltetuetan dauden pertsonen perfilaren deskripzioa (beharrak, ezaugarriak, egoera, motibazioa, interesak, etab.).
- Testuinguru kaltetuetako pertsonekin lanegiten duten zerbitzu sarearen deskripzioa.
- Talde kaltetuekin edo testuinguru kaltetuetan parte hartzen duten erakundeek egiten duten esku-hartzearen ezagutza; baita gizarte-hezitzaileek esku-hartze horietan duten eginkizuna ere.
- Gizarte eta hezkuntza eskuhartze programen diseinua.

Gizarte eta Hezkuntza Esku-hartzea Familian, Hautzaroan, Nerabezaroan eta Gaztaroan (nahitaezkoa) (FHNG)

Ikasgai honetan, kasuak aurkezten duen egoeran inplizitu dauden funtsezko galderei eman dakizkiekeen galderak aztertuko ditugu. Honako galdera hauei, alegia:

- Hautzaroa kontzeptua: Hautzaroa edo hautzaroak? Zein da kasuak aurkezten duen begirada haren protagonistei dagokienez?
- Babesgabe haurren alorreko erakunde- eta arau-sarea; Zer legek eta arauk arautzen dute hautzaroaren eta gaztaroaren alorreko esku-hartzea? Zer erakundetatik erantzuten zaio egoera honi?
- Hautzaroan eta gaztaroan esku hartzeko bitartekoen eta programen sarea Gipuzkoan eta EAEn: Zer zerbitzu eta bitarteko aktibatu dira kasu honetan?, Zein aktibatu behar ziren?, Zein dira haien esku-hartzearen mugak?
- Bitarteko normalizatuak, oinarrizkoak eta espezifikokoak: zein dira?, hezkuntza-xedea, lanabes eta tresna estandarizatu espezifikoenak.
- Hezitzailearen papera eta garrantzia: zein dira nire bitarteko propioak gizarte-hezitzaile gisa?
- Profesionalen arteko koordinazioa eta sareko lana: Zer profesionalekin partekatu behar dut ekintza? Zein dira alderdi horren benetako inplikazioak?

Familia Orientazioa (hautazkoa)(F)

Familia-orientazioaren irakasgaien, honako puntu hauek kontuan hartuta kokatuko dugu kasua:

- Familia, aniztasunetik eginiko eraikuntza bezala.
- Euskadiko Familia Politika. Familia-orientazioko esku-hartze mailak. Familia-hezitzailearen papera.
- Familiaren ezagutzarako marko teorikoak: ikuspegi nagusiak eta familia-dinamikaren oinarritzko prozesuak.
- Hezkuntzatik eginiko esku-hartzea zerbitzu publikoetatik.

Bizitza aktiborako trantsizioa (hautazkoa)(BAT)

Ikasgai honen helburua da aztertzea gazteak moldatu behar diren gizarte-inguruneen trantsizioaren, gizarteratzearen eta lan-munduratzearen prozesuak eta programak. Ikasgai honetan, kasuak inplizituki barne hartzen dituen funtsezko gaien balizko erantzunei helduko diegu. Hona gaiak:

- Ezagutzea dauden ibilbideak eta informazio-iturriak hezkuntza-sistematik lan-mundura heltzeko.
- Lan-munduratzearen faktoreak. Trantsiziorako zailtasunak.
- Zein dira trantsizio-, gizarteratze- eta laneratze-prozesuak eta programak? Zein dira Erkidegoko hezkuntza-, prestakuntza- eta enplegu-programak eta sareak?
- Zein dira enplegua bilatzeko estrategiak gazteak moldatu behar diren gizarte-ingurunean?

Kultura arteko hezkuntza (hautazkoa)(KA)

Ikasgai honen helburua da ikasleei laguntzea hezkuntza formalean eta ez-formalean etorkinekin nola antolatu asmatzen. Gizartearen erronka berriei erantzuteko proposamen berriak eta erantzunak antolatzeko laguntza nahi du izan. Lanerako ildoak:

- Kultura, hezkuntza, kultur aniztasuna eta beste kontzeptuak aztertzea.
- Kultur arteko hezkuntza formala eta ez-formala aztertzea.
- Kultur arteko hezkuntzaren oinarritzko gaiak aztertzea eta eztabaidatzea: PISA txostena, ikasle etorkinak. Praktika onak eremu formalean eta ez-formalean.
- Eleaniztasuna eta ikasle etorkinak. Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako programak.
- Gizarte-hezitzaileen formazioa kulturarteko hezkuntzan.

■ DILANA EGITEKO PROZEDURA

ASTEAK	IKASGELAKO LANA	IKASGELAZ KANPOKO LANA	EMAITZA
1. FASEA (16-21astea)	<p>DILANaren aurkezpena. Kasua ematea. Taldeen osaketa. Lan-prozedura.</p> <p>1. EGOERAREN ANALISIA ETA BALORAZIOA 1.1. Narrazioaren talde-irakurketa. Argitu beharreko alderdiak zehaztea 1.2. Baloraziorako tresnen aurkezpena, eta bere aplikazioa (BALORA) 1.3. Kasuaren premien analisia eta potentzialtasunak: arrisku eta babes faktoreak</p> <p>2. TESTUINGURUAN KOKATZEA 2. 1. Testuinguru sozialaren eta komunitate-sarearen azterketa eta kokapena.</p>	<p>Kasuaren bakarkako irakurketa</p> <p>Kasuaz jabetzea. Kasuaren interpretazio/gaiarekiko inplikazio pertsonalaren ekarpena egitea taldeari. Egoera/kasu honetako behar nagusia/k mugatzea eta aztertzea. Dokumentuen bilaketa eta lanketa. Balizko jarduerak zehaztea.</p> <p>Aukeratutako testuinguruan eta komunitatean dauden zerbitzuak, programak eta proiektuak bilatzea, baita zerbitzu horiek kudeatzen dituzten erakundeak ere.</p>	<p>-Kasuaren narrazioaren laburpena eta proposatutako aldaketa posibleak.</p> <p>- Kasuaren eskema kronologikoa eta genograma</p> <p>- Kasuari dagozkion zerbitzu eta programa sarea</p> <p>-Kasuaren balorazioaren emaitza (BALORA)</p> <p>- Esku-hartze proiektiboa justifikatua eta argumentatua</p> <p>Lehen entrega: otsailak 28, tutoreari 1. FASEARI BURUZKO TXOSTENA</p>
2. FASEA 22.astea-27.asteak	<p>3. GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO ESKU-HARTZEAREN DISEINUA 3.1. Esku-hartzearen xedea eta helburuak. 3.2. Zerbitzuak, Baliabideak eta Programak 3.3. Kasu plana 3.4. Esku-hartzearen diseinua 3.5. Gizarte-hezitzailea eta gizarte-esparruko beste profesional batzuen arteko harremana: koordinazioa 3.6. Kasuaren planteamendu inklusiboak</p>	<p>Testuen irakurketa. Landa-lana. Esku-hartzea diseinuaren zehaztapena Behin-behineko idazketa.</p>	<p>Bigarren entrega: apirilak 8, tutoreari 2. FASEA: TXOSTENAREN ZIRRIBORROA Proposatzen den gizarte eta hezkuntzako esku-hartzearen idatzizko justifikazio arrazoitua</p>
28-30.asteak	<p>Prestaketa 30. asteen klase presentzialik ez dago, baina tutorizazioak egiteko irakasleak bulegoetan egongo dira Txostenaren Ahozko aurkezpenak izango dira maiatzaren 7an, ostegunean eta ikasle guztientzako derrigorrezkoa da asistentzia)</p>	<p>Tutorizazioa Azken idazketa. Lanaren aurkezpenaren prestaketa</p>	<p>AHOZKO AURKEZPENA: maiatzak 7 BEHIN BETIKO TXOSTENAREN ENTREGA (AZKEN ENTREGA): maiatzak 15, tutoreari</p>
Ordu-kopurua:	25 h (10 presentzialak + 15 ez-presentzialak) ikasgaiako.		
Balorazioa	DILANen talde-lanean lortutako notak nahitaezko ikasgai bakoitzean 2 puntu gehitzea ekarriko du. Kalifikazioa (0-2) izango da: % 75, egindako dokumentua, eta % 25, ikasgelako aurkezpena.		

EGUTEGIA

Ikasgai bakoitzeko saio praktikoa, DILANean aritzeko erabiliko da egun itzaldunetan

ASTEA	ASTELEHEN A	ASTEARTEA	AZTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
1 (urtarrilak 23)	Eskolarik gabeko eguna				
17 (urtarrilak 27)	F	FHNG	BAT	KA	K
18 (otsailak 3)			A		
19 (otsailak 10)			A	KA	K
20 (otsailak 17)		FHNG	BAT		
21 (otsailak 24)	Eskolarik gabeko eguna	Eskolarik gabeko eguna		KA	K
22(martxoak 2)	F		BAT	KA	K
23 (martxoak 9)		FHNG			
24 (martxoak 16)				Eskolarik gabeko eguna	Eskolarik gabeko eguna
25 (martxoak 23)	F		A		
26 (martxoak 30)		FHNG	A		
27 (apirilak 6)	F		BAT		
(apirilak 13)					
28 (apirilak 20)	F		A	KA	K
29 (apirilak 27)		FHNG	BAT		Eskolarik gabeko eguna
30 (maiatzak 4)				AURKEZPENA K (denok presentzialki)	

■ TXOSTENAREN EGITURA

DILANaren azken txostenak atal hauek izango ditu:

1. Azala; taldeko kideen izenak ere jarri behar dira.
2. Aurkibidea; atal bakoitza zer orrialdetan dagoen jarri behar da.
3. Lanaren laburpen txiki bat (200 hitz).
4. Lanari buruzko sarrera.
5. Lanaren garapena eta erabilitako metodologia.
6. Moduluko ikasgaien ikuspegi integratu batetik idatzitako ondorio hausnartuak.
7. Egindako lanaren balorazioa.
8. Kontsultatutako bibliografia eta informazio-iturriak.
9. Eranskinak.

Alderdi formalak:

- Txostenaren luzera: 30.000 karaktere. Ahal dela, inprimatu bi aldeetatik.
- Letra-tipoa: aise irakurtzeko modukoa (Times New Roman, Verdana, Calibri, Arial...). Erabili letra-tipo bera dokumentu osoan.
- Letra-tipoaren tamaina, txostenean: 12. Erabili tamaina handiagoak edo txikiagoak atalen izenburuetarako (14) eta orri-oineko oharretarako (10).
- Lerroarte: 1,5
- Marjinak: goikoa eta behekoa, 2,5; ezkerrekoa eta eskuinekoa, 3 (Word-en estandarra).
- Txostenaren orrialdeek goiburua izango dute (sekzio bakoitzerako bat: sarrera, proiektuaren oinarriak eta abar), eta orri-oina (orrialdeen zenbakiak).
- Taulak eta irudiak, behar bezala zenbakituta, oinean deskribapena, eta testuaren barruan, erreferentzia jarrita.
- Kapitulu bakoitza orrialde bakoiti berri batean hasiko da.
- Bibliografia-aipamenak eta erreferentziak, APA arauen arabera.

■ EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

DILANa emateko, aurkezteko eta ebaluatzeko, ezinbestekoa izango da aurrez tutorearen oniritzia. Tutorearen ustez ez baditu betetzen 6. puntuko baldintzak ("Txostenaren egitura"), EZ GAITZAT joko du, eta ikasgaietako ohiko ebaluazioa ezinezkoa izango zaio ikasleari.. Egoera horretan, ikasgai bakoitzeko "azken proba"ra jo beharko du ikasleak. Tutorearen iritziz baldintzak bete badira, moduluko irakasleek DILANa ebaluatzeari ekingo diote.

DILANean lor daitekeen baloraziorik gorena 2 puntukoa izango da ikasgai bakoitzerako. Bi puntuak honela banatuko dira: a) ahozko aurkezpenean, gehienez 0,50 puntu, eta b) lan idatzirako, gehienez 1,50 puntu. Entregagarrien ebaluazioak eragina izango du behin betiko txostenaren notan.

Ebaluazio irizpideak:

- a. Egokitasuna: txostenaren edukiak landutako gaiak modu koherentean eta osatuan aztertu behar ditu, txostenaren irakurketa hasierako galderari emandako erantzun ongi landua izan dadin.
- b. Informazioaren antolaketa: Emandako informazioak ongi antolatuta egon behar du (dokumentu honetan zehaztutako egituraren arabera). Grafiko eta taulek ondo eraikita, zenbakituta eta izenburua jarrita egon behar dute. Informazioa, lortutako datuak, aise aurkitzeko moduan.
- c. Emaitzen integrazioa eta justifikazioa. Emaitzek arazoaren ikuspegi osoa eman behar dute, eta emandako datuetan oinarrituta egon behar dute. Emaitzei eusten dien arrazoibideak koherentea eta argia izan behar du.
- d. Unibertsitate-mailari dagozkion idazkera eta zuzentasuna erabiliko dira, forma aldetik (ortografia, aipamenak, erreferentzia bibliografikoak...) zein idatzizko adierazpenaren kohesioaren eta koherentziaren aldetik.
- e. Akademiaren, zientziaren eta lanaren esparruetako kode etikoak errespetatzea.
- f. Ezarritako epeak betetzea.
- g. Ahozko aurkezpenean denbora-mugak errespetatzea (hasiera eta amaiera). Halaber, kontuan izango da erabilitako euskarriak zenbateraino landuak dauden eta zenbateko eskarmentua erakusten den euskarri horiekin lanean (IKTak, sortutako materiala, eta abar).
- h. Autoebaluazioa. Ikaskuntza-prozesuaren beraren eta hura hobetzeko lortutako emaitzen gaineko jabetze-mailari buruzko autoebaluazioan egindako gogoeten kalitatea baloratuko da.

kalifikazio-sistema

UPV-EHUn indarrean dagoen araudiaren arabera.

Dokumentu hau Gizarte Hezkuntzako VI Moduluko irakasleek osatu dute: Miren Agirregoitia, David Alvear, Isabel Bartau, Joana Garmendia, Joxe Garmendia, Irune Ibarra, Joana Miguelena, Goretti Orbea (2019-2020 ikasturtea)